

EAEko

ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN

ARLOKO IKERKETA
KOORDINATZEKO

PLANA

2017-2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

DEPARTAMENTO DE SALUD

1. AURREKARIAK

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA
EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA
PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA
EKINTZA OPERATIBOAK
ANTOLAKUNTZA EGITURA
FINANTZAKETA
EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

EAEKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO IKERKETARAKO PLANA 2011-2016

Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketarako 2011-2016 aldirako Plan Eragilea 2011. urtean sortu zen, helburu estrategiko honekin: **“ikerketa sendotzea, EAEen elikagaien segurtasun-maila al bait handiena izan dadin”**.

Planak hainbat ikerketa-proiektu babesa ematea izan du xede, EAEko nekazaritzako elikakatean sor daitezkeen eta giza osasunean arazoak eragin ditzaketen arriskuak hautemateko, kontrolatzeko eta prebenitzeko.

PLANA INDARREAN EGON DEN SEI URTEETAN, HONAKO EKINTZA HAUEK GAUZATU DIRA:

2011
2016

1

Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatze Mahaia sortu da, Plana nola ezartzen den kontrolatzeko eta Planaren jarraipena egiteko. Mahai horretan parte hartzen dute, Elikagaien Segurtasunaren arloko I+Bko kudeaketa eta finantzaketaren arduradunek ez ezik, esparru honetan lan egiten duten hainbat euskal erakundek.

Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Plataforma sortu da; sarbide irekiko plataforma da, eta Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa-ildo nagusiak, Planean sartutako proiektuak eta proiektu horiek gauzatzen dituzten EAEko ikertaldeak partekatzea eta ezagutzera ematea du helburu.

2

Laurogei ikerketa-proiektu jarri dira abian, 3,3 milioi euroko finantzaketarekin. Haien bitartez informazio esanguratsua helarazi zaie EAEko elikagaien arriskuak aztertzeke egiturei, euskal nekazaritzako elikakatean eragina izan dezaketen arriskuak murriztu eta prebenitzeko aholkularitza eman dezaten.

3

Europako hiru saretan parte hartu da, erakunde publikoen artean nazioz gaindiko lankidetzak sustatze aldera Elikagaien Segurtasunaren eta elikakatearen iraunkortasunaren esparruan.

- **SAFEFOODERA**, Elikagaien Segurtasunari buruzko ERANETa (2004-2011)
- **SUSFOOD**, elikagaien ekoizpen eta kontsumo iraunkorrari buruzko ERANETa (2011-2017)
- **SusAn**, animaliak ekoizteko sistema iraunkorrei buruzko ERANETa (2015-2020)

4

5

Komunikazio Plana ezarri da Plan honetako ezagutzak eta ekintzak helarazteko, eta, ondorioz, urteroko jardunaldiak egin dira elikagaien segurtasunerako proiektuen emaitzak zabaltzeko.

Amaitu berri den Plan honen balorazioa oso ona izan da; izan ere, Elikagaien Segurtasunaren arloan ikerketa-premia ugari identifikatzeko aukera eman du, baita lehenetsuneko premia horiek oinarri hartuta zenbait proiektu gauzatzeko ere, EAEko I+Bko zentrozen artean koordinatuta. Horrenbestez, Elikagaien Segurtasunaren arloan ikertzeke baliabideak optimizatu ahal izan dira.

Liburuxka



2. NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

2.1. ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO LEGE-OINARRIA

Europako Batzordeak lehentasun handieneko helburuen artean sartu zuen Elikagaien Segurtasuna, eta legegintzako programa bat ezarri zuen, [Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zuria \(2000\)](#) agirian jasotako «abeletxetik mahaira» kontzeptuan oinarrituta.

Agiri horretan, elikagaiei dagokienez politika proaktiboa eratzeko planak ezarri ziren: legedia eraberritzekoak, arau sorta koherente eta gardena lortzeko; elikakate osoan egindako kontrolak

indartzekoak; eta aholkularitza zientifikoko sistemaren gaitasuna areagotzekoak, giza osasunaren eta kontsumitzailearen babesaren maila handia dela bermatzeko.

Ondorioz, elikagaiei buruzko legediaren printzipioak eta betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritza (EFSA) eratu, eta Elikagaien Segurtasunari buruzko prozedurak finkatu ziren ([178/2002 \(EE\) Erregelamendua](#)).


2.2. “ONE HEALTH” ESTRATEGIA - OSASUN BAKARRA

“One Health” estrategia hainbat diziplinaren lankidetzaz osatuta dago; toki-, nazio eta mundu-mailan dihardute lanean, pertsonen, animalien eta ingurumenaren osasuna ezin hobea izan dadila lortzeko.

“One Health” ikuspegia praktikara eramateko asmoa 2008. urtean finkatu zen, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME), Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) eta Animalia Osasunerako Mundu Erakundearen arteko itun formal baten bidez. Itunaren bitartez, osasun publikoaren eta animalien osasunaren sektoreek elkarrekin lan egiten dute, osasuna babesteko eta Elikagaien Segurtasuna bermatzeko.

“One Health”/“Una sola Salud” kontzeptuaren barruan, espezie guztien (gizaki, animalia nahiz landare) osasuna eta ongizatea sustatu, hobetu eta babestu nahi da, osasun publikoaren, animalien osasunaren eta ingurumen-osasunaren arteko profesionalen

lankidetzaz eta elkarlana hobetuz, hartara gizaki-animalia-ekosistema interfazeko osasun-arriskuei diziplina anitzetatik hel dakiela bultzatzeko.



Iturria: GRC (Global Risk Forum)

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2.3. EUROPA 2020 ESTRATEGIA - ELIKAGAIEN SEGURTASUN IRAUNKORRA

Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategia ezarri zuen Europako ekonomia indarberritzeko tresna gisa, ikerketa eta berrikuntza (I+B) harturik hazkunde iraunkorra oinarritzeko zimenduzat. (COM (2012) 497).

Europako estrategia hori hainbat gizarte-erronkari heltzen dien Horizonte 2020 programan garatzen da; besteak beste, «Elikagaien Segurtasuna, nekazaritza eta basogintza iraunkorrak,

itsasoaren eta barneko uren ikerketa eta bioekonomia»ri buruzko gizarte-erronka ageri da. Erronkak irmo egiten du **iraunkortasunaren alde, dela nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzen jatorriari, ekoizpenari eta eraldaketari dagokienez, dela elikagaien kontsumoari dagokionez; izan ere, kontsumitzaileek gero eta gehiago eskatzen dituzte elikagai seguruagoak, osasungarriagoak eta kalitate handiagoak.**

2018
2020

GIZARTE-ERRONKA HORRETAN, IKERKETA ETA BERRIKUNTZAKO BOST LEHENTASUN ESTRATEGIKO EZARRI DIRA DATOZEN HIRU URTEETARAKO (2018-2020):

- 1 Klima-aldaketari eta lur-itsasoetako erresistentziari aurre egitea.
- 2 Urrezko 3 arauetan (murriztu, berrerabili eta birziklatu) oinarritutako ekonomia zirkularrera igarotzea.
- 3 Ekosistema funtzionalak, elikagai-sistema iraunkorrak eta bizimodu osasungarriak lortzea.
- 4 Lurreko eta itsasoko berrikuntza garrantzitsuak sustatzea: produktu berriak, balio-kateak eta merkatuak.
- 5 Lurralde adimendunak eta konektatuak garatzea, baita balio-kateak ere landako eta itsasaldeko eremuetan.

BERRIKUNTZA: FUNTSEZKOAK EKONOMIA ZIRKULARRERA IGAROTZEKO



Berrikuntza, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari balioa ekartzeko tresna gisa



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA


EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2.4. GARAPEN IRAUNKORREKO EUROPAKO ESTRATEGIA

Garapen Iraunkorreko Europako Estrategian (EOSD), lehenbiziko aldiz ezarri ziren iraunkortasunaren hiru **habeak: lehiakortasun ekonomikoa, ingurumenaren babesa eta gizarte-onargarritasuna.**

Horregatik, nekazaritzako elikakatearen garapen iraunkorrak ere heldu behar die hiru habeoi:

1. «**Ekonomia**»: elikakatearen ekoizpena, erresilientzia eta lehiakortasuna hobetzea.
2. «**Ingurumena**»: natura-baliabideen (ura, lurra, airea) erabilera efizientea kudeatzea, sortutako hondakinak murrizteko eta elikakatearen ingurumen-iraunkortasuna hobetzeko.
3. «**Gizartea**»: elikakateko jardunbideak hobetzea, kontsumitzaileen onargarritasuna handitzeko eta animalien ongizatearekin, elikagaien kalitatearekin eta segurtasunarekin, biodibertsitatearekin eta ekosistema-zerbitzuak ematearekin lotutako gizarte-erronkei heltzeko.



IRAUNKORTASUNAREN HIRU HABEAK

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2.5. ELIKAGAIEN SEGURTASUN GLOBALA 2030

Ikerketa Zentro Bateratua (JRC) funtsezko eragilea da Europa 2020 estrategiaren barruan lehiakortasunarekin, iraunkortasunarekin eta I+B arloko gizarte-erronka handiekin lotura duten lehentasunak erdiesteko. Erakundeak [Elikagaien Segurtasunari buruzko 2030erako ikuspegia](#) definitu du, **adieraziz ingurune aldakor bat dela, non Elikagaien Segurtasuna iraunkortasunez baitago bermatuta, lau erronka handi hauei erantzuteko:**

- Abeltzaintzako eta nekazaritzako ekoizpen-sistemak eraldatzea, inbertsioen, ikerketaren eta berrikuntzaren, eta prestakuntzaren bidez.
- Landa-eremu guztietan ingurune egokiak mantentzea, landa-garapenaren bidez.
- Elikagai-sistema bat lortzea, non elikagaien ekoizpenak eta kontsumoak orekatuak izango baitira mundu osoan, eskualdean nahiz tokian-tokian, merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatuz.
- Neurri handiko eskariari begirako elikagai-sistema lortzea, non kontsumitzailearen jokabide arduratsua bat etorriko baita iraunkortasun-helburuekin.

Global Food Security Vision 2030

A world where food security is guaranteed for all on a sustainable base via:



The significant transformation of **agriculture production systems** (through investments, research and training);



The maintenance of an adequate **enabling environment** in all rural areas (rural development);



A food system where production and consumption are **balanced** between local, regional and global levels (markets and trade);



A largely **demand-driven food system** where responsible consumer behaviour shapes sustainable objectives.

Iturria: JRC

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2.6. 2020 OSASUN ESTRATEGIA ETA ELIKADURARI ETA NUTRIZIOARI BURUZKO EUROPAKO EKINTZA PLANA:

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gaixotasun kronikoak nabarmendu ditu munduko heriotza-kausa nagusitzat; izan ere, urteko heriotza guztien % 63 hartzen dute. Horiek horrela, giza osasunaren babesaren arloko erronka nagusia dira gaixotasun horiek –besteak beste, gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia, arnasbi-deetako gaixotasunak eta diabetesa–.

Gaixotasun horietako hainbatetan elikadura da arrisku-faktore nagusia; izan ere, mantenugai mota jakin batzuen gabeziak edo gehiegitasunak dietaren desoreka eragin dezakete, eta handitu egiten dute gaixotasun horiek izateko arriskua. Horregatik jarri zen martxan **“Health 2020” estrategia European**, hain zuzen, osasun-sistemak sendotzeko, elikadura osasungarria susta dezaten, eta esparru horretako sostengua, zaint-

za, segimendua, ebaluazioa eta ikerketa hobetzeko. Estrategia horren barruan kokatzen da **Elikadurari eta Nutrizioari buruzko Europako Ekintza Plana**. Herritarrek eta batez ere haur eta gazteek bizi-ohitura osasungarriak har ditzatela lortzen laguntzeko ekimen guztiak sustatzen ditu, nagusiki, elikadura osasungarriaren eta jarduera fisikoaren ohiko praktikaren bitartez.

Xede berarekin ere, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak abian jarri zuen nutriziorako, jarduera fisikorako eta obesitatearen prebentziorako **NAOS estrategia** Kontsumoko, Elikagaien Segurtasuneko eta Nutrizioko Espainiako Agentziaren (AECOSAN) bitartez.



Iturria: NAOS

3. EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

3.1. ELIKADURA-ARRISKUEN AZTERKETAREN LEGEZKO OINARRIA

63/2009 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko elikadura-arriskuak ebaluatzeko, aztertze eta horien gaineko aholkuak emateko organoak sortu zituen. Zehazki, Elikagaien Segurtasunaren arloan eskudundutako euskal administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako egitura hauek jarri zituen abian, **arriskuen azterketaren** esparruan (arriskuen ebaluazioa, arriskuen kudeaketa eta arriskuen komunikazioa) jardun zezaten:

- **Elikagaien Segurtasunerako Zientzia Batzordea:** holkularitza zientifikoa emateko organo independentea, arriskuak ebaluatzeko eta Elikagaien Segurtasunaren kudeaketarako oinarri gisa balio duten irizpen zientifikoak emateko.
- **Arriskuen Mahai Teknikoa:** administrazioiko teknikariez osatutako foroa, elikadurarekin lotutako arriskuei buruzko informazioa eta datuak trukatzeko. Beste funtzio batzuen artean, euskal elikakatean sar litezkeen arriskuak identifikatzen eta lehenesten ditu.
- **Elikagaien Segurtasunerako Kudeaketa Batzordea:** elikadura-arriskuak ezabatzeko, murrizteko edo gutxienera txikitze ekintzak aztertzen, balioztatzen eta sustatzen dituen organo politikoa. Horrez gain, arriskuei buruzko kanpo-komunikazioa planifikatzen eta koordinatzen du.



Iturria: Elik

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

3.2. BERRIKUNTZAKO ETA LANKIDETZAKO ESTRATEGIA BIZIA (BLEB)

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak 2014an prestatu zuen [Berrikuntzako eta Lankidetzako Estrategia Bizia \(BLEB\)](#). Horretarako, Innobasquek eta nekazaritzako elikagaien balio-katearen alorrean diharduten erakunde publikoek eman zioten aholkularitza: besteak beste, Azti Tecnaliak, Elikak, Hazik eta Neiker Tecnaliak. Horiek guztiak Katilu izeneko espazioan elkartu ziren, berrikuntzako eta lankidetzako dinamikak sustatzeko asmoz.


BLEBen helburua da lankidetzarako ekimen berritzaileen garapena sustatzea lehen sektorean, euskal landa- eta itsasertz-guneetan eta elikagaigintzan, eta oso erronka argia du: lankidetzak, berrikuntza eta esperimendazioa ohiko jardunbide dituen kultura eratzea.

Hala, xede hauek ditu BLEBek: berrikuntza gauzatzen duten nekazaritzako elikagaien enpresa kopurua handitzea, l+bren alorrean gardentasun handiagoa bermatzea, eta berrikuntzako ekimenak lankidetzan gauzatzen dituzten ETE eta ekoizleen kopurua handitzeko bidea ematea.

BLEB diseinatzeko, aintzat hartu dira sektoreko, lurraldeko, eskualdez gaindiko eta Europako estrategia-esparruak: kasurako, Elikagai Industriaren Lehiakortasun Plana (EILP) 2014-2016; Landa Garapenerako Programa (LGR) 2020; Euskadirako Espezializazio Adimendunaren RIS3 Estrategia; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2020, eta Horizonte 2020 Europako programa.

Elikagaien Industriaren
Lehiakortasun Plana LGP
2020 eta Eusko
Jaurlaritzaren Lehentasun
Estrategikoak

Iturria: BLEB



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA



3.3. INGURUMENKO ESPARRU PROGRAMA 2020

Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduan atera zuen argitara [2020rako Ingurumeneko IV. Esparru Programa](#) (IEP 2020), Eusko Jaurlaritzaren 14 plan estrategikoetako bat, zeinak zeharka txertatzen baitu ingurumena Euskadi 2020 estrategian. IEP horrek Euskadik aurrean dituen ingurumen-erronka berriak deskribatu eta datozen urteetarako helburu eta jarduketak finkatzen ditu.

Programako erronka nagusien artean jasotzen denez ekonomia zirkularraren eta lurralde lehiakorren sustapena. Beraz, elikadura zirkularra da identifikatzen dituen sei proiektu giltzarrietako bat. Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko 2011-2016ko Plana proiektu giltzarri horren barruko ekimenetako bat da; era berean, 2017. urtean, ekimen horien artean sartu da Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko 2017-2020ko Plana.



3.4. OSASUN PLANA ETA ELIKADURA OSASUNGARRIAREN PLANA

Eusko Jaurlaritzak [2013-2020ko Osasun Plana](#)ren bitartez zehaztu zuen zer ildori jarraitu behar zaion eta zer jarduketa lehenetsi diren euskal herritarren osasuna hobetzeko. Plan horixe izan da osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa sustatuz azken urteotako osasun-politikak bideratu dituen plangintza- eta programazio-tresna. Helburuen artean, Euskadiko biztanleentzako elikadura osasungarria diseinatzea eta ezartzea jasotzen du planak.

Testuinguru horretan, Osasun Sailak parte hartzeko prozesu bat eraman du aurrera 2016. urtean, eta **elikadura osasungarri**rako ekimenak gauzatzeko proiektua garatu du haren barruan. Proiektuak

zenbait jarduketa-ildo bultzatzea du xede, **EAEko biztanleen artean elikadura-ohitura osasungarri**agoak sustatzeko eta, hala, **elikadura-ohitura desegokiekin** lotutako gaixotasunen goranzko joera geldiarazten laguntzeko: **halakoak dira, besteak beste, gehiegizko pisua, obesitatea, gaixotasun kardiobaskularrak, hipertentsioa, hiperkolesterolemia eta diabetesa**. Proiektua 2017. urtean hasiko da gauzatzen.

2013-2020ko Osasun Planak, halaber, helburuen artean hartzen du ikerketa eta berrikuntzaren sustapena, osasunaren hobekuntzaren zerbitzurako ezagutza sor dezaten.



3.5. OSASUN-ARLOKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO ESTRATEGIA 2020

Osasunaren arloko I+b estrategia hori aurreko atalean aipatutako 2013-2020ko Osasun Planaren harira sortu zen. Hala, 2016ko otsailean, Eusko Jaurlaritzak [Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020](#) delakoa argitaratu zuen, helburu honekin: «Euskal Autonomia Erkidegoan biozientzien eta osasunaren arloaren garapena sendotzen laguntzea, osasun sistemako I+G+B jarduerak instituzionalizatuz eta enpresekiko nahiz beste eragile batzuekiko elkarrekintza erraztuz, osasun-arloko emaitzak eta balioaren sorkuntza hobetze aldera». Biozientziak-Osasuna arloa Euskadiko RIS3 Estrategian lehenetsitako hiru arloetako bat da; beraz, ezinbestekoa da arlo horretako I+G+B jarduera sustatzea.

«Biozientziak-Osasuna» arlo estrategikoaren eta «Elikadura» abagune-lurraldearen artean, zeharkako ikerketa-alor komun bat baino gehiago dago RIS3 estrategiaren testuinguruan: esaterako, **elikadura osasungarria eta, horrenbestez, gaixotasun kronikoen, alergien eta elikagaiekiko intolerantzien prebentzio primarioa, baita kontaminatzaile kimiko edo biologikoak dituzten elikagaiak hartzearen ondoriozko toxiinfekzioena ere**. Horregatik, Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plan honetan txertatu dira ikerketa-alor horiek.



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK


ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

3.6. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETA-ILDOAK ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO IKERKETAREN ARLOAN

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak jarduteko ildo hauek ezarri dituzte 2016-2020 legegintzaldirako Elikagaien Segurtasunaren arloko 2017-2020ko Plan honetan.



4. PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

4.1. XEDEA

Hau da plan honen xede estrategikoa:

“Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa sendotzea, I+B proiektuak babestuz eta Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketarako jarritako baliabide ekonomikoak optimizatuz”.

Azken **xedea** da, beraz, plan honen bitartez **Elikagaien Segurtasunaren** arloan finantzatzaren diren **I+B** proiektuak baliagarriak izatea Euskadiko nekazaritzako elikakatean sar litezkeen eta gizakion osasunean arazoak eragin litzaketen arriskuak hautemateko eta murrizteko.

4.2. EREMUA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEA

Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plan honen irismena **EAEko nekazaritzako elikagaien balio-kate osoa da, kate osoan kontuan hartuta iraunkortasunaren hiru habeak (lehiakortasun ekonomikoa, ingurumenaren babesa eta gizartearen onarpena).**

Elikakatea osotasun gisa ulertu behar da, barne hartzen duen elikakatearen lehen mailako ekoizpena, animalientzako pentsuen ekoizpena eta kontsumitzaileentzako elikagaien hornidura edo salmenta; izan ere, elementu horiek guztiek eragin dezakete elikagaien segurtasunean ([178/2002 Erregelamendua, elikagaien legea](#) eta [buruzko printzi-](#)

[pio eta betekizun orokorrak ezartzen, Elikagaien Segurtasuneko Europako Autoritatea sortzen eta Elikagaien Segurtasunari dagozkion prozedurak finkatzen dituen](#)).

Ezinbestekoa da planteamendu integrala egitea Elikagaien Segurtasuna bermatzeko, hasi lehen mailako ekoizpenetik, eta merkaturatzen edo esportatzen den arte. Elikakateko maila guztietan bermatu behar da Elikagaien Segurtasuna ez dela arriskuan jartzen ([852/2004 Erregelamendua, elikagaien higieneari buruzkoa](#)).

EAEko nekazaritzako elikagaien balio-kateko mailak:

1. Lehenengo ekoizpena: elikakateko lehen maila lehenengo ekoizpenak osatzen du; hau da, lurreko produktuak ekoizteaz, hazteaz nahiz landatzeaz arduratzen diren abeltzaintzako, ehizako eta arrantzako profesional eta enpresa guztiek.

2. Elikagaien eta pentsuen industria: bigarren maila, berriz, elikagaien eta pentsuen industriek osatzen dute, eta hor barruan sartzen dira elikagai edo pentsu batek igarotzen dituen fase guztiak, hasi lehenengo ekoizpena bukatzen denetik eta saltokira bidaltzen denera arte. Besteak beste, etapa hauek ditu:

- Prestakuntza, fabrikazioa edo eraldaketa
- Manipulazioa
- Ontziratzea
- Biltegiratzea



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA


EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

3. Merkaturatzea: hirugarren maila honek barne hartzen ditu beste jarduketa batzuk ere, merkaturatzeaz beraz gain; besteak beste, banaketa, manipulazioa, garraioa eta biltegiatzea. Hala, banaketa-zentroek, handizkako dendek, supermerkatu eta hipermerkatuek, denda tradizionalak, banaketa-makinek eta abarrek esku hartzen dute merkaturatze-prozesuan.

4. Kontsumoa: balio-kateko azken maila da, eta elikagaien azken helmuga. Elikagaiak etxeetan nahiz sukaldaritzarekin lotutako lokaletan (jate txekoak, tabernak, kafetegiak, jantoki kolektiboak eta antzekoak) kontsumitzen dira.

Janarien balio-katea eta ekonomiako beste sektore batzuetan daukan eragina: sektore estrategikoa Euskadirentzat

Iturria: BLEB



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA


FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

4.3. ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO ESPARRU ESTRATEGIKOAK

Erreferentziako esparruek –besteak beste, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritza (EFSA) eta H2020 Programa– elikagaien segurtasunerako ezarri dituzten ikerketa-arlo estrategikoe-tan oinarrituz, eta kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzako sailen estra-

tegiak (Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak, Osasuna eta Ingurumena), **I+Bko arlo estrategiko hauek zehaztu dira Elikagaien Segurtasunaren alorrean, plan honen xedea erdieste aldera:**



1 Arrisku kimikoak

Elikagaietan aurki daitekeen jatorri kimikoko edozein substantzia, Euskadiko nekazaritzako elikakatean sar badaiteke eta ingurumenerako, animalien osasunerako nahiz gizakion osasunerako arriskua ekar badezake.

Adibideak: produktu fitosanitarioen hondakinak, mikotoxinak, metal astunak, alergenak eta abar.

2 Arrisku biologikoak

Elikagaietan aurki daitekeen jatorri biologikoko edozein substantzia, Euskadiko nekazaritzako elikakatean sar badaiteke eta ingurumenerako, animalien osasunerako nahiz gizakion osasunerako arriskua ekar badezake.

Adibideak: bakterioak, birusak, parasitoak eta abar.

3 Arrisku fisikoak

Elikagaietan aurki daitekeen edozein material arrotz, Euskadiko nekazaritzako elikagaien katean sar badaiteke eta animalien nahiz gizakion osasunerako arriskua ekar badezake.

Adibideak:

- Lehengaien kontaminazioa: hezurak, arantzak, fruitu lehorren azalak, perdigoak, amuak eta abar.
- Prozesuan zeharreko kontaminazioa: ontziratze-materialen hondarrak, plastikoak, beira eta abar.
- Manipulazio-jardunbide okerren ondoriozko kontaminazioa: ileak, eraztunak, belarritakoak eta abar.



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

4

Arrisku nutrizionalak

Kontsumo-ohituren aldaketa oro, dietan desoreka eragin badezake eta giza osasuna arriskuan jar badezake.

Adibideak: gatz, gantz eta azukre gehiegi kontsumitzea; zuntz, bitamina, fruta eta barazki nahikorik ez kontsumitzea...

5

Trazabilitatea:

Elikagaien elikakate osoan jarraipena egin ahal izatea EBko elikagai-segurtasuneko politikaren funtsezko faktorea da Elikagaien Segurtasuna bermatu ahal izateko ([852/2004 Erregelamendua](#), [elkagaien higienari buruzkoa](#); [178/2002 Erregelamendua](#), [elkagaien legegintzari buruzko prozedurak ezartzen dituen](#); eta [931/2011 Erregelamendua](#), [animalia-jatorriko produktu](#)etarako [trazabilitatearen arloko betekizunak ezartzen dituena](#)); hori dela eta, funtsezkoa da plan honetan ikerketa-arlo estrategikotzat hartzea trazabilitatea.

Trazabilitatea ezinbestekoa da Elikagaien Segurtasuna eta kontsumitzaileei emandako informazioaren fidagarritasuna bermatzeko; izan ere, aukera ematen du, arriskuren bat hautematen bada, kaltetutako elikagaiak azkar aurkitzeko eta merkatutik kentzeko.

Trazabilitateak barne hartzen ditu bai produktuak identifikatzeko eta kontrolatzeko metodologiaren garapena eta ezarpena, bai elikagaien zein osagaien jarraipena egiteko eta egiaztatzeko teknologiak, Elikagaien Segurtasuna bermatze aldera.

6

Elikagaietako alergenok

Alergia eta intolerantzia gehienak eragiten dituzten elikagaiak edo osagaiak ([1169/2011 Erregelamendua](#), [kontsumitzaileari ematen zaion elikagaien buruzko informazioari buruzkoa](#)) arriskuan jar dezakete giza osasuna.

Adibideak: glutena, laktosa, histamina, sulfitoak, anisakiak eta abar.



5. EKINTZA OPERATIBOAK

5.1. ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA

I) Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaia

Helburua:

Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa koordinatzea, EAE n ikerketaren arloan jarduten, kudeatzen eta aholkularitza ematen duten eragileen artean.

Funtzioak:

- Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko 2017-2020ko Plana garatzea
- Planaren ezarpena zaintzea eta haren kontrola eta jarraipena egitea
- Planeko ekintza operatiboen jarraipena egitea

Kideak:

- EUSKO JAURLARITZA:
 - o Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketen finantzaketa publikoaren eta kudeaketaren arduraduna baita (mahaiburua).
 - o Osasun Publikoaren eta Adikzioak Zuzendaritza, osasuna babesteko politikak garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen baita.
 - o Osasun Publikoaren laborategiak.
- Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B eremuan diharduten euskal erakundeak: AZTI, NEIKER, UPV/EHU eta LEARTIKER.
- BIOEF, EAEko osasun-sisteman berrikuntza eta ikerketa sustatzeko euskal fundazioa.
- ELIKA, Elikagaien Segurtasunaren arloko aholkularitza zientifiko-teknikoa ematen duen erakundea, eta organo horren idazkaritza teknikoa.

II) LANKIDETZA TRANSNAZIONALERAKO SAREAK

Helburua:

ERANET etan parte hartzea; hau da, Elikagaien Segurtasun iraunkorraren arloko ikerketa-programak kudeatzen eta finantzatzen dituzten erakunde publikoen arteko lankidetzarako Europako sareetan.



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA


EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA





AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

5.2. ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO I+BKO BALIABIDEAK ETA ERAGINKORTASUNA OPTIMIZATZEA

Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa-premiak identifikatzeko eta lehenesteko prozesuak, baita horiek I+B proiektuetan zertzekoak ere, fase hauek ditu:

1 Ikerketa-premiak identifikatzea eta biltzea ZER?

Identifikatzea, urtean behin, zer ikerketa-premia dauden Elikagaien Segurtasunaren arloan epe laburrera edo ertainera.

NORK?

- EAEko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa, organo huraxe arduratzen baita EAEko elikagaien arriskuak ebaluatzeaz.
- Arriskuen Mahai Teknikoa, elikagaien arriskuak identifikatzeaz eta lehenesteaz arduratzen baita.
- EAEko nekazaritzako elikagaien sektorea (EAEko elikagaien ekoizpen-sektorea, eraldatzaile eta banatzaileak), haien kezkei erantzuteko eta haien katean ager litezkeen arriskuak konpontzeko.
- Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B eremuan aritzen diren euskal eragileak, eremu horretan jakitun eta eskarmentudun baitira.

2 Ikerketa-premiak lehenestea eta ebaluatzea ZER?

Epe laburrera eta ertainera identifikatu diren ikerketa-premiak lehenestea eta ebaluatzea, ahaleginak bateratzeko, sinergiak partekatzeko eta Elikagaien Segurtasunaren arloko I+Bra bideratutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak optimizatzeko, ezarritako lehenesteko irizpideak aplikatuz:

NORK?

- EAEko Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa, organo huraxe arduratzen baita EAEko elikagaien arriskuak ebaluatzeaz.
- Arriskuen Mahai Teknikoa, elikagaien arriskuak identifikatzeaz eta lehenesteaz arduratzen baita.



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

3 Ikerketa-premiak I+Bko proiektuetan txertatzea ZER?

Lehenetsitako ikerketa-premiak EAEko I+Bko proiektu-proposamenetan txertatzea, I+Bren arloko eragile guztien lankidetzarekin eta parte-hartzearekin.

NORK?

- Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B eremuan diharduten euskal erakundeak: AZTI, NEIKER, UPV/EHU eta LEARTIKER, eta Osasun Publikoko laborategiak, eremu horretan jakitun eta eskarmentudun baitira.

4 Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B proiektuak finantzatzea ZER?


Lehenetsitako ikerketa-premiei erantzuteko proposatu diren proiektuetarako baliabide ekonomikoak esleitzea eta bideratzea.

NORK?

- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen baita.
- Osasun Publikoaren eta adikzioak Zuzendaritza, osasuna babesteko politikak garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen baita.

EKINTZA OPERATIBOAK / ZER?	ERAGILEAK / NORK?	KOORDINATZAILEA
1. Ikerketa-premiak identifikatzea	Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa (bilerak) Arriskuen Mahai Teknikoa (bilerak) EAEko nekazaritzako elikagaien sektorea Elikagaien Segurtasunaren arloko I+Bn diharduten EAEko eragileak	ELIKA
2. Ikerketa-premiak lehenestea	Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa (bilerak) Arriskuen Mahai Teknikoa (bilerak)	ELIKA
3. Premiak I+Bko proiektuetan txertatzea	I+Bren arloko eragileak eta Osasun Publikoko laborategiak	ELIKA
4. I+Bko proiektuen finantzaketa	Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza (EKIZ) Osasun Publikoaren eta adikzioak Zuzendaritza (OPZ)	EKIZ

1. taula.
 Elikagaien Segurtasunaren arloko
 I+Bren efizientzia eta baliabideak
 optimizatzeko prozesua



AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

5.3. EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA PLANAREN EMAITZAK

Xedea:

Plan hau eta haren jarduketa-ildoak ezagutaraztea, bai eta planaren bitartez urtero finantzatzen diren proiektuen emaitzen berri ematea ere.

Komunikaziorako Plana:

- I) Plana ezagutarazteko materiala: liburuxkak, artikulak...
- II) Proiektuen emaitzak ezagutarazteko urteroko jardunaldiak.
- III) [Elikagaien Segurtasunaren arloan Ikertzeko Plataforma.](#)



6. ANTOLAKUNTZA-EGITURA

6.1. PLANAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA

1 EUSKO JAURLARITZA:
**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
eta Osasun Saila**

Plana kudeatzeko eta finantzatzeko ardura Eusko Jaurlaritzako bi saili dagokie; zehazki, Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B eremuan eta Osasun Publikoaren eremuan eskumenak dituztenei.

2 ELIKA: Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

Planaren idazkaritza teknikoa ELIKARI dagokio; izan ere, aholkularitza teknikoa eta zientifikoa ematen die Elikagaien Segurtasunaren arloan eskudundutako sailei.

6.2. PLANAREN HARTZAILEAK

1 Elikagaien Segurtasunaren arloan eskumenak dituen euskal administrazioa:

a. Eusko Jaurlaritza:

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
- Osasun Saila

b. Foru Aldundiak:

- Arabako Foru Aldundia: Nekazaritza Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia: Iraunkortasun eta Ingurumen Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila

c. Udalak

2 EAEn arriskuen azterketa egiten duten egiturak:

- Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Kudeatzailea
- Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa
- Arriskuen Mahai Teknikoa

3 Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorea:

- Lehenengo ekoizpena
- Elikagaien industria
- Merkaturatzea

4 Kontsumitzaileak eta gizartea

6.3. PLANAREN I+B ARLOKO KOLABORATZAILEAK

Elikagaien Segurtasunaren esparruan diharduten euskal erakundeak, dela proiektuak garatuz, dela Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa eta berrikuntza bultzatuz eta sustatuz nekazaritzako elikagaien balio-kate osoan.

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA



7. FINANTZAKETA

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

2. taula.

*Ekintza operatiboetarako aurreikusitako
gastuaren banaketa eta finantzaketa planaren
indarraldian (2017-2020)*

EKINTZA OPERATIBOAK	GASTUA	FINANTZATZAILEA
1. Elikagaien Segurtasunaren arloko eragileen arteko lankidetzeta eta koordinazioa		
Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaia	1.000 €	Eusko Jaurlaritza eta ELIKA
Europako sareak (ERANET SusAn)	21M € ¹	EB ² eta ERANET kideak
	100.000 ³ €	EKIZ
2. Elikagaien Segurtasunaren arloko I+B baliabideak eta eraginkortasuna optimizatzea		
I+Bko proiektuen finantzaketaren banaketa	2,5- 3 M €	EKIZ eta OPZ
3. Ezagutzaren transferentzia eta planaren emaitzak		
Komunikazio Plana	10.000 €	ELIKA

¹ ERANETen 2016-2020 aldi osorako guztizko aurrekontua

² EB: Europako Batzordea

³ Gastu hau baldintzapekoa da; izan ere, ERANETaren Ebaluazio Batzordeak ontzat eman behar ditu, aurretiaz, I+Bko euskal eragileek parte hartzen duten proiektu transnazionalak eta horien finantzaketa.

8. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

HELBURUA:

Balioztatzea ea Elikagaien Segurtasunaren arloko proiektuak finantzatzeko aurrekontuko baliabideak baliagarriak diren plan honen helburua lortzeko; hau da, ea laguntzen duten Euskadiko nekazaritzako elikakatean sar litezkeen eta gizakion nahiz animalien osasunean arazoak eragin litzaketen arriskuak hautematen eta murrizten.

AURREKARIAK

NAZIOARTEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

EAE-KO ESPARRU ESTRATEGIKOA

PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA

EKINTZA OPERATIBOAK

ANTOLAKUNTZA EGITURA

FINANTZAKETA

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

EKINTZA OPERATIBOAK		ADIERAZLEAK	2017-2020RAKO HELBURUA
1. Elikagaien Segurtasunaren arloko eragileen arteko lankidetzeta eta koordinazioa	Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaiaren funtzionamendua	Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaiaren bilera kopurua	3
	Lankidetzeta transnacionalerako saretan parte hartzea	Elikagaien Segurtasuneko Europako zenbat saretan parte hartu nahi den proiektuak batera finantzatzeko	1
2. Elikagaien segurtasuneko I+B arloko baliabideen eta eraginkortasunaren optimizazioa	Ikerketa-premiak identifikatzea eta biltzea	EAEEn elikadura-arriskuak hautemateko identifikatu den premia kopurua guztira	50
	Ikerketa-premiak ebaluatzea eta lehenestea	I+Bko proiektuetan jorratutako xede-premien %	75-80%
	Ikerketa-premiak I+Bko proiektuetan txertatzea	Plan honetan finantzaturako proiektu kopurua	60
		Administrazioari Elikagaien Segurtasunari buruzko erabakiak hartzen laguntzen dioten proiektuen %	90%
		Nekazaritzako elikagaien euskal sektoreko eragileek elkarrekin lan egiten duten proiektuen %	30-35%
3. Ezagutzaren transferentzia eta planaren emaitzak	Komunikazio Plana	Erabilitako aurrekontuko baliabideen %, aurreikusitakoaren aldean	90-100%
		Planaren emaitzak ezagutarazteko eta transferitzeko egindako ekintzen kopurua	20
		Ikerketa Plataformara egin diren bisiten kopurua	400

3. taula.

Plan honetako ekintza operatiboan jarraipena egiteko adierazleak

Edizio-data: 2017ko martxoa

Plan hau Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaiak egin du, eta bertan ordezkaturik daude Euskal Autonomia Erkidegoko honako erakunde hauek:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

